




IKAS-EKINEZKO  
ERREGIMENEN  
LANBIDE HEZIKETA  
DUALA EUSKADIN

LABURPEN  
GIDA



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA

## 01

Euskadiko ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Dualaren ezaugarriak · 6-7 Orr.

## 03


Euskadin ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualean eskaintzen diren plan-motak · 14-19 Orr.


## 02

Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualaren helburua · 10-11 Orr.

## 04

LH Dualeko proiektuetako funtsezko alderdiak eta planen hasiera datak · 22-23 Orr.





**>> Lanbide-heziketa egiten dutenen prestakuntza hobetzeko balio behar digun, tresna bat da**



# 01

**Euskadiko  
ikas-ekinezko  
erregimeneko  
Lanbide-Hezi-  
keta Dualaren  
ezaugarriak**

# 01

## Euskadiko ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualaren ezaugarriak

---

Euskadiko ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala eredu malgu bat da, zeina:

- Etorkizunari begira dagoen.
- Produkzio-inguruarekin konektatuta dagoen.
- Ikasleen prestakuntzan zeharkakotasuna bermatzen duen.
- Profesional balioaniztunak prestatzen laguntzen duen. Produkzio-sektore bereko enpresa batik bestera mugitu ahal izateko edo enpresa bereko lanpostu desberdinetan aritzeko beharrezko gaitasunak eskuratzeko.

LH Duala ez da xede bat bere horretan, tresna bat da, lanbide-heziketa egiten dutenen prestakuntza hobetzeko balio behar diguna.

Euskadiko ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualaren eredu bi modalitateen bidez ari da garatzen, eta aukera desberdinak ematen ditu kudeaketari begira. Modalitateetako baten helburua lanbide-heziketako zikloetan eskuratutako gaitasunak indartzea da, eta bestearena, berriz, lanbide-espezializazioa eskuratzen laguntzea, euskal produkzio-sareak teknologietan eta ekoizpen-prozesu aurreratuetan dituen konplexutasun handiagoko premiei erantzun ahal izateko.

## 2 urteko Modalitatea

### HELBURUA:

ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea.

### Iraupena guztira:

2400 eta 2800 ordu artean

### Orduak ikastetxean:

1450 eta 1600 ordu artean.

### Orduak enpresan:

800 eta 1200 ordu artean

## 3 urteko Modalitatea

### HELBURUA:

ekoizpen-prozesu konplexuak direla eta enpresek dituzten beharrei erantzun zuzenaren espezializazioa eskuratzea.

### Iraupena guztira:

3400 eta 4700 ordu artean


### Orduak ikastetxean:

1750 eta 1950 ordu artean

### Orduak enpresan:

1800 eta 3100 ordu artean

*Bi modalitate horietan ikasleek ez dituzte ordu gutxiago egingo LHko ikastetxean; aitzitik, gehitu egiten zaizkie orduak, enpresako prestakuntza jaso dezaten. Lanbide-heziketako ikastetxean ematen diren prestakuntza-orduak bere horretan mantendu dira, beraz, ikasleen prestakuntzan zeharkakotasuna bermatzeko, helburua izanik beren lanbiderako prestakuntza sakona izango duten profesional balioaniztunak prestatzea.*






# 02

**Ikas-ekinezko  
erregimeneko  
Lanbide-Heziketa  
Dualaren  
helburua**

---







*>> Helburu nagusia da lanaren bidez ikastea eta ez ikasten ari dela lan egitea*

# 02

## Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualaren helburua

---

**Helburu nagusia da lanaren bidez ikastea eta ez ikasten ari dela lan egitea.**

Ikasleek ikastetxean nahiz enpresan zer gaitasun eskuratu beharko dituzten adostuko dute lanbide-heziketako ikastetxeko tutoreak eta enpresako tutoreak.

**Konpromiso hori berariazko prestakuntza-programa baten bidez gauzatuko da.**

Programak irauten duen bitartean, bi tutoreek elkarrekin kontrolatu eta ebaluatuko dute enpresan jasoko den prestakuntza, ezagutza indartzeko eta hartan sakontzeko eta tituluaren gaitasunak bermatzeko; horretarako, produkzio-sektoreen beharretara egokituko dute ikasleen lanbide-prestakuntza.




**Ikasleek BETI beren prestakuntza osatzeko eta hobetzeko helburu argia izango dute enpresara joaten direnean.** LHko ikastetxeak izango du prestakuntza horren programazioa egiteko ardura, betiere enpresarekin adostuta.



**ENPRESAK ez du, inola ere, ikastetxea ordezkatu.** Ikastetxeak hartzen du bere gain programazioa egiteko eta jarraipen-plana eta ebaluazio-sistema diseinatu eta gauzatzeko ardura, parte hartzen duen enpresa bakoitzarekin koordinatuz.

*Ikastetxeak eta enpresak zehaztuko dituzte programazioa eta planen plangintza. Izatez, enpresan egin beharreko jardueren definizio zehatz bat jasoko da, lortu nahi diren ikaskuntzako helburuen arabera. Lanpostuek egokiak izan behar dute ikasleak egiten ari diren ikasketen profilerako*



A photograph of a person walking away from the camera in a long, brightly lit hallway. The hallway has a high ceiling and reflective floor. A large, semi-transparent teal rectangle is overlaid on the image, covering most of the frame. The text is positioned in the lower-left area of this teal overlay.

>> *Enpresak ez du inongo kasuan ikastetxea ordezkutzen*





# 03

**Euskadin  
ikas-ekinezko  
erregimeneko  
Lanbide-Heziketa  
Dualean  
eskaintzen diren  
plan-motak**

---

# 03

## Euskadin ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Dualean eskaintzen diren plan-motak



2 urte

3 urte

4 urte



## 2 urteko Modalitatea

### 1.AUKERA · 2 urteko planak

**HELBURUA:** ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea.

- **Modua:** KONTRATUA edo BEKA.
- **Hasiera:** ekaina, iraila.

**IRAUPENA:** ohiko iraupena bi ikasturtekoa da.

- **Lehen ikasturtean** lanbide-heziketako ikastetxean ematen da prestakuntza.
- **Bigarren ikasturtean** ikastetxean eta enpresan aritzen dira ikasleak, ikas-ekinean.

### 2.AUKERA · 2 urteko plan indartuak

Lantokiko prestakuntza egin aurretik gehienez bi modulu gainditu gabe dituzten ikasleak.

Bi urteko ereduaren arabera diseinatutako aukera da hau, lantokiko prestakuntza-modulua egin aurretik beste modulu guztiak gaindituta ez dituzten ikasleen ikasketari laguntzeko eta hura hobetzeko.

- **Modua:** BEKA.
- **Hasiera:** martxoa.
- **Amaitzean:** enpresan, gutxienez, 800 ordu egin ondoren.
- **Martxotik ekainera bitarte :** (enpresara joatearekin batera) titulua eskuratzeko gainditzea falta zaizkien moduluari dagokien prestakuntza indargarria jasoko dute ikasleek ikastetxean bertan.

**IRAUPENA:** ohiko iraupena bi ikasturtekoa da.

- **Lehen ikasturtean** lanbide-heziketako ikastetxean ematen da prestakuntza.
- **Bigarren ikasturtean** irailetik martxora bakarrik ikaskuntza ikastetxean.
- **Martxotik aurrera** enpresan egingo da ikasleen prestakuntza-jarduera, gutxienez 800 ordu bete arte (gutxi gorabehera urrian bukatuko lukete).



Horrek esan nahi du **800 ordu** baino gehiago egingo direla praktikan enpresan.

## 2 urteko Modalitatea

### 3.AUKERA · 2 urteko planak, lantokiko prestakuntza + LH Duala

Bereziki, zerbitzuen sektoreko zikloetarako.

2 urteko ereduaren arabera diseinatuta, LH Duala egitea errazteko LH Dualean parte hartzeko zailtasun bereziak dauden sektoreetan.


- **Modua:** BEKA.
- **Hasiera:** ekaina, lantokiko prestakuntza egin ostean.
- **Amaiera:** Enpresan LH Dualean gutxienez 800 ordu egin ondoren.

Ikasleek lantokiko prestakuntza-aldia amaitzen dutenean, **bi aukera dituzte:** titulua eskatu edo prestakuntzarekin jarraitu LH dualeko programa batean, eskuratutako prestakuntza sakontzeko. LH dualeko aldia bukatutakoan eskuratuko dute titulua ikasleek.

LHko ikastetxean ematen den prestakuntza lantokiko prestakuntzako 360 bat ordurekin eta gutxienez LH dualeko beste 800 ordurekin osatuko litzateke.



Horrek esan nahi du gutxienez **1200 orduko** prestakuntza praktikoa jasoko dela enpresan.



## 3 urteko Modalitatea

### 1.AUKERA· 3 urteko planak espezializatorik gabe

Plan horiek 2 urteko ereduaren arabera diseinatuta daude, eta ikastetxeko eta enpresako prestakuntza erritmo malguagoan planifikatzeko aukera ematen die ikasleei.

- **Modua:** KONTRATUA o BEKA.
- **Hasiera:** ekaina edo iraila.
- **Amaiera:** hirugarren ikasturteko ekainean.


**IRAUPENA:** ohiko iraupena hiru ikasturtekoa da.

- **Lehen ikasturtean** lanbide-heziketako ikastetxean ematen da prestakuntza.
- **Bigarren eta hirugarren ikasturtean** ikastetxean eta enpresan aritzen dira ikasleak, ikas-ekinean.

Aukera honen bidez, bigarren ikasturteko moduluak bi urtetan egiteko aukera dago (bigarren eta hirugarren ikasturtean). Modulu guztiak gainditu beharko dira titulua eskuratzeko, hirugarren ikasturteko ekainerako.



Horrek esan nahi du **2200 ordu** baino gehiago egingo direla praktketan enpresan.



## 3 urteko Modalitatea

### 2.AUKERA · 3 urteko planak, espezializazioarekin.

**HELBURUA:** Produkzio-ingurune konplexuetako prestakuntza-beharrei erantzuna emango dion lanbide-espezializazioa eskuratzea.

- **Modua:** BEKA.
- **Hasiera:** ekaina, iraila edo martxoa.
- **Amaiera:** hirugarren ikasturteko ekainean.

**IRAUPENA:** ohiko iraupena hiru ikasturtekoa da.

- **Lehen ikasturtean** lanbide-heziketako ikastetxean ematen da prestakuntza.
- **Bigarren eta hirugarren ikasturtean** ikastetxean eta enpresan aritzen dira ikasleak, ikas-ekinean. *Amaitutakoan, titulua eta egindako espezializazioaren programa-ziurtagiria eskuratuko dira.*

Alor profesional zehatz batzuei egokitutako lanbide-espezializazio bat behar den kasuetarako dago pentsatuta aukera hau. Produkzio-sektoreen premietarako diseinaturako espezializazio-programa batzuen bidez garatzen dira plan horiek. Lanbide-espezializazioko programa horiek pertsonen prestakuntza bereziaren beharrak betetzera zuzenduta daude, pertsona horiek lanean has daitezen behar bereziak dituzten Euskadiko enpresa eta ekoizpen-sektoreetako –batik bat, industria-sektoreko– lanpostuetan.

Horrenbestez, programa horiek diseinatu dira, besteak beste, honako hauei erantzuteko:

- *Fabrikazio aurreratuaren eta Industria 4.0ren konplexutasunari.*
- *Fabrikazioko sistema adimendunen konplexutasunari.*
- *Teknologia aurreratuaren bilakaerari eta aurrerapenari (garapena).*
- *Espezializazio handiko profil profesionalak lortzeko beharrari.*



Gutxienez **1800 ordu** eta **gehienez 3100 ordu** egingo dira enpresetan, prestakuntza praktikoa jasotzen.



## 4 urteko Modalitatea

### 1.AUKERA · Dual to World, Nazioartekotzea

Espezializazio-programa bat egin eta lanbide-heziketako titulua Erdi Mailakoa edo Goi Mailakoa eskuratu duten ikasleentzat bakarrik.

Espezializaziodun 3 urteko planen arabera dago diseinatuta. Laugarren ikasturtea atzerriko herrialde batean egiten da.

- **Modua:** espezializaziodun hiru urteko planarena; laugarren ikasturtea, berriz, nazioartekotze-beka batekin edo enpresa-kontratu batekin egingo da
- **Hasiera:** espezializazio programa bat amaitu ondoren
- **Amaiera:** beka edo enpresak ezarritako programa amaitzen direnean.

**IRAUPENA:** 4 urte iraungo ditu osorik programak, eta honela banatuko da

- **Lehen ikasturtean** lanbide-heziketako ikastetxean ematen da prestakuntza.
- **Bigarren eta hirugarren ikasturtean** ikastetxean eta enpresan aritzen dira ikasleak, ikas-ekinean. *Amaitutakoan, titulua eta egindako espezializazioaren programa-ziurtagiria eskuratuko dira.*
- **Laugarren ikasturtean** atzerriko herrialde batean egingo dituzte praktikak ikasleek, LH dualean ari den enpresa baten filiak edo delegaritza batean. *Programa osoa bukatzen dutenean, izandako esperientziaren ziurtagiria jasoko dute ikasleek.*




Eredu honek atzerrian jasotzen den prestakuntzaren abantaila guztiak eransten dizkio **espezializaziodun 3 urteko planari**.

# 04

**LH Dualeko  
proiektuetako  
funtsezko  
alderdiak eta  
planen hasiera  
datak**

---







JANUARY  
2017

S	M	T	W	T	F	S
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

**>> LH Dualeko programak  
arrakastatsuak izan  
daitezela bermatzen  
duten faktore gakoak**

# 04

## LH Dualeko proiektuetako funtsezko alderdiak eta planen hasiera datak

### LH DUALEKO PROIEKTUETAKO FUNTSEZKO 8 ALDERDIAK

Lanbide-heziketako zentroak eta enpresak bietako prestakuntza-eta ekoizpen-jardueren banaketa adostu beharko dute. Jarduera horiek proiektu batean jasoko dira, **funtsezko zortzi alderdi** betez. **Alderdi horiek dira, hain zuzen, LH Dualeko programak arrakastatsuak izan daitezela bermatzen duten faktore gakoak**, ikasleei zentroan antolatutako prestakuntza-programetara eta enpresan egindako jardueretara bertaratu ahal izateko baldintzak bermatuko dizkietenak.

1. Lanbide-heziketako titulua identifikatzea.
2. Partaideak identifikatzea.
3. Lanpostua identifikatzea
4. Ordutegia eta egutegia banatzea.
5. Zentroan eta enpresan garatuko den ikaskuntzako emaitzen arabera programatzea.
6. Aurreikusitako ebaluazio-sistema.
7. Zentroko eta enpresako tutoreak ikasleari arreta emateko plana eta arreta horren maiztasuna.
8. Ikasleak baldintzak eta zehaztasunak ulertu eta onartzen dituela dioen konpromisoa.

## 2 URTEko Modalitatea

AUKERAK	PRESTAKUNTZA HASTEKO ALDIAK				HAUEI ZUZENDUA
	Ekaina	Iraila	Martxoa	Ekaina(*)	
2 URTEKO PLANA	●	●			Ikasle guztiak.
2 URTEKO PLAN INDARTUAK			●		Gehienez ere 2 modulu gainditu gabe dituzten ikasleentzat.
2 URTEKO PLANAK LANTOKIKO PRESTAKUNTZA / LH DUALA			(Lantokiko Prestakuntza)	●	LH duala parte hartzeko zailtasun bereziak dauden sektoreetan egiteko aukera ematea.


## 3 URTEko Modalitatea

AUKERAK	PRESTAKUNTZA HASTEKO ALDIAK				HAUEI ZUZENDUA
	Ekaina	Iraila	Martxoa	Ekaina(*)	
3 URTEKO PLANAK, ESPEZIALIZAZIORIK GABE	●		●		Prestakuntza eritimo malguagoan jasotzea erabaki duten ikasleentzat
3 URTEKO PLANAK, ESPEZIALIZAZIOREKIN	●	●	●		Ikasle guztiak

● Kontratua / Beka    ● Beka    (\*) hurrengo urteko ekaina

## 4 URTEko Modalitatea

AUKERAK	PRESTAKUNTZA HASTEKO ALDIAK	HAUEI ZUZENDUA
LH DUALA TO WORLD	ESPEZIALIZAZIO BAT BUKATZEN DENEAN Global Training / nazioartekotzea	Espezializazio programa bat egin duten ikasleentzat.





**Fp**

**EUSKADI**  
LANBIDE HEZIKETA

*Lotura zure  
etorkizunarekin*

*Euskadi, auzolana, bien común*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**